

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 12ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 172/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko martxoaren 20ko ohiko bilkura hurrengo egunean, martxoaren 21ean, egiteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 173/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea jardunen eta sistemaren kontratuaren eta beharrezko zerbitzu osagarrien kontratuaren esleipena, foru hauteskundearen emaitzei buruzko behin-behineko informazioa bildu, transmititu, osatu eta zabaltzeko, eta datuak transmititzeko sakelako telefonoak alokatzeko.

#### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 174/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea Aguraingo Udalaren aurrekontu eta finantza bideragarritasun plana amaitzeko foru arau proiektua, horren helburuak bete direlako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 175/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean Arabako toki erakundeek izango duten partaidetzen banaketa, 2018ko likidazioari dagokiona.

Foru Gobernu Kontseiluaren 176/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onestea aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntza lerroaren 2019ko deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 177/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea Igayko Kontzejuak bere izena aldatu eta aurrerantzean Igai izan dadin abiarazitako espedientearen aldeko txostena egiteari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 178/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea Aldundi honen eta bere erakunde autonomoen 2019rako Proiektu Informatikoen Urteko Planari, haren finantziarioari eta Arabako Kalkulugunea SAREN esku uzteari proiektuen planean onetsitako jardun informatikoak garatzeko zerbitzua, barnean direla aplikazio komunentz mantentzea eta urteko zerbitzuak ematea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 179/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea Lamuzako jauregiaren kanpoaldeko inguratzailea zaharberritzeko obrak gauzatzeko lanak prozedura ireki bidez kontratatuzko espedienteari eta haren energia eraginkortasuna hobetzeari, 3.300.250,80 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 12 hilabeteko gauzatze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 180/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Extintores Celta SL enpresari esleitzea eraikinetako suteen aurkako babes ekipoen prebentzio mantentze eta mantentze zuzentzailearen kontratua, 175.522,23 euroan (BEZa barne) eta 4 urteko gauzatze epearekin.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 181/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundien arteko hitzarmena aldatzeari, zeina proiektu bat garatzeko baita fakturatzeko eta kobratzeko sistemen kontrolerako tresnak (TICKET-BAI proiektua) aztertzeko eta ezartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 182/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea foru aldundi honen 2018ko ekitaldirako 202/18 eta 203/18 kreditu transferentzien espedienteei eta 33/18 kreditu gaitzearen espedienteari.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 183/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Onespena ematea aldundi honek Kirolaraba Fundazioaren alde 2019rako egindako transferentziari.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 184/2019 Erabakia, martxoaren 12koa. Behin betiko onestea "Villamadernetik Espejora iritsiko den hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeko proiektua" erabilera publikoaren deklarazioa egitea, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerranda ateratzea eta jendaurrean jartzeko izapidea egitea.